

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 481/2016 Erabakia, uztailaren 27koa, igotzen duena Arabako Foru Aldundiko funtzionarioen oinarritzko ordainsariak eta ordainsari osagarriak ehuneko 1, 2015eko ekitaldian ezarritakoen aldean

Ordainsariak direla-eta funtzio publikoan indarrean dagoen lege araubidea hauexek arautzen dute: urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, enplegatu publikoaren oinarritzko estatutuaren testu bategina onartzen duenak; 6/1989 Legeak, euskal funtzio publikoarenak; haiek garatzen dituzten hainbat arauk eta, bereziki, uztailaren 30eko 207/1990 Dekretuak, euskal administrazio publikoetako funtzionarioen ordainsariak.

Arau horiekin bat etorritik, oinarritzko ordainsarien (soldata, hirurtekoak eta aparteko ordainsariak) zenbatekoa Estatuak aurrekontu orokorren legeak zehazten ditu, destino-osagarriaren zenbatekoa Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuen legeak, eta berariazko osagarria eta ordainsari osagarriak Euskadiko administrazio publikoek.

Urriaren 29ko 48/2015 Legearen, Estatuaren 2016rako aurrekontu orokorrenen, 19.2 artikulua hau xedatzen du:

“2016an, sektore publikoan lanean ari direnen lansariak ezin izango dira 2015eko abenduaren 31n indarrean zirenak baino ehuneko 1 baino gehiago izan, erkatzen diren aldi bien homogeneotasuna dela eta, nola langileei dagokienez hala haien antzintasunari dagokionez.”

Abenduaren 23ko 9/2015 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoaren 2016rako aurrekontu orokorrak onartzen dituenak, honako hau ezartzen du 19.1 artikuluan:

“2016. urtean, lan arloko araubidera atxikita ez dauden Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorreko, erakunde autonomoetako, zuzenbide pribatuko erakunde publikoetako eta Autonomia Erkidegoko sektore publikoko partzuergoetako langileen urteko guztizko ordainsariak ehuneko 1eko igoera izango dute, 2015eko ekitaldian ezarritakoen aldean. Ordainsari horiek, betiere, homogeneotasunaren arabera kalkulatu dira, erkaketaren bi aldietarako, bai langileen kopuruari eta antzintasunari dagokienez, bai lanaldi araubideari dagokionez”

Eta 19.8 artikuluan, destino-osagarriaren zenbatekoa xedatzen du.

Aurrekontu zuzkidura nahikoa dagoenez gero, bidezkoa da Arabako Foru Aldundiko funtzionarioen oinarritzko ordainsariak eta ordainsari osagarriak ehuneko 1 igotzea, 2015eko ekitaldian ezarritakoen aldean.

Horren berri eman zaielarik langileen ordezkariari.

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuak hala proposatuta eta bat etorritik ondoren aipatzen diren foru dekretuek ezarritakoekin: Diputatu Nagusiaren uztailaren 132/2015 3 Foru Dekretua, Arabako Foru Aldundiaren sailak zehazten dituenak, Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 30eko 154/1993 Foru Dekretua, funtzio publikoaren arloko eskumenak ezartzen dituenak, eta otsailaren 9ko 10/2016 Foru Dekretua, funtzio publikoaren gaietan eskumena duen sailaren egitura organikoa eta funtzionala onartzen duena, hau.

XEDATZEN DUT

Arabako Foru Aldundiko funtzionarioen oinarritzko ordainsariak eta ordainsari osagarriak ehuneko 1 igotzea, 2015eko ekitaldian ezarritakoen aldean.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko uztailaren 27a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren diputatua

CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR